



B – 1 Amara Berri Sistema

AMARA BERRI SISTEMA Gaitasunak garatzeko proiektu orokorra

Proiektu orokor bat garatzean, hura osatzen duten elementuen gain hausnarketa egin beharra dago. Horrela, hainbat alderdi berri sartzeko eta aurretik existitzen direnak berrinterpretatzeko parada izango dugu. Nahitaezko izanik, proiektua finkatu eta handiago bihurtuko duten zenbait gaitasun beharrezko dira, proiektuaren funtsezko elementuak mantendu baina hura unean unera egokitzeke. Horrenbestez, ezin dugu proiektua ulertu sektore edo hezkuntza-etapa bakarraren ikuspegitik soilik, horien guztien arteko loturaren eta koherentziaren ikuspegitik baizik.

Proiektu hau garatzeko oinarrietako bat taldeko lana da (irakasleak, ikasleak, familiak ...). Proiektuaren planteamendu metodologikoa komuna da, bertan islatzen direlarik IHP eta ICP proiektuetako alderdiak, ikastetxeko beharretara egokitutako antolakuntza-egituraren barruan. Eragileen artean nolabaiteko lotura egon dadin, sistemak orain baino egituratuagoa egon behar du nahitaez.

Testuinguru aldakor batean bizi eta lan egin beharko dute ikasleak egoki prestatu behar ditu ikastetxeak. Horrez gain, arazoei aurre egiteko eta arazoak konpontzeko gaitasunak landu behar ditu ikastetxeak. Horrenbestez, ikastetxearen kontzeptu berri horrek erronka berriak ekarriko dizkie irakasleei. Bizitza etenik gabe aldatzen ari denez, irakasgaiak ere aldakorrak izan behar dira. Hori dela eta, XXI. mendeko ikastetxeek prest egon behar dute, ikaste- eta irakaste-prozesuak garatzeaz gainera, pentsatzeko prozesua garatzeko. Ikastera eta pentsatzera irakatsi behar zaie ikasleei ikastetxean, eta pentsatze-prozesu hori lagungarri izan behar zaigu gure gizarte-garapena eta garapen pertsonala hobetzeko.

Alde horretatik, hizpide dugun prestakuntzari buruzko kontzeptuak erronka berri horiei aurre egin behar die. Sare-estiloko prestakuntzaren eraginez, beraz, ikastetxe guztiek etengabeko hobekuntza, aldaketa eta berrikuntza garatzen dute, taldean lan eginez eta "eskola sortuz".

Mintzagai dugun prozesuaren bidez, Amara Berri Sistemaren sarea sortu da, egun EAEko 20 ikastetxek osatua. Haren bidez, esaterako, jardueraren hasieratik ezagutzak trukatzeko harremanak ezarri dira, eta elkarlanean, komunikazioan, elkartasunean, eta abarretan oinarrituriko kultura-estilo komunak sortu.

Proiektu orokorrek diziplina arteko ikuspegiaren beharra dute. Hartara, zenbait gaitasunek aukera ematen dute hezkuntza proiektuaren kontzepzioaren nahiz praktikaren arteko koherentzia bilatzeko, eta suerta dakizkigukeen erronka zein behar berriei aurre egiteko. Hortaz, hizpide dugun sistemak gaitasun horiek garatzeko bide emango duela uste dugu.

Gehien-gehienak bat etor daitezke gaitasunen arabeko curriculumaren marko teorikoarekin. Edonola ere, guztiz beharrezkoa da marko horren baitan aldaketa metodologikoa eta antolakuntzazkoa gertatzea, hezkuntza-komunitatea osatzen duten elementuen artean rol berriak eta gauzak egiteko modu berriak ezarri ahal izateko. Esparru horretan aurrera egite aldera, ikastetxeetan proiektu orokorrak ezarri beharko dira ezinbestean. Hortaz, ikastetxean sortzen diren ekimen guztiek ikastetxeko gorputz kulturala osatu beharko dute. Gerora, gorputz kultural hori pausoz pauso hazi beharko da. Gorputz horretan guztiok egon behar dugu inplikaturik, eta xede izateaz gainera, bitarteko ere izango da hobekuntza.



Deialdiaren xedea

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoei dei egitea "Amara Berri Sistemako" ikastetxe-sarean parte hartzeko eskaera egin dezaten, argibide hauetan jasotako xedearekin, ezaugarriekin eta baldintzekin bat etorritz.

Gehienez ere 6 ikastetxe hautatuko dira, parte-hartzaileek behar besteko laguntza, aholkularitza eta prestakuntza izango dutela bermatzeko.

Programaren xedea

Deialdi honetako xedeak dira:

- Ikastetxeen etengabeko hobetze-prozesuak sustatu, erraztu eta babestea.
- Taldeko lana garatuko duten antolakuntza-egiturak sortzea, ikerketa, sorkuntza, alderaketa eta praktikari buruzko gogoeta sustatzeko.
- Metodologia- eta antolakuntza-aldaketak egoki martxan jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza, aholkularitza eta tresnak ikastetxeen esku jartzea.
- Esparru guztiak bilduko dituzten egitura osoak garatzea, eskola-elkarte osoak parte har dezan.
- Pedagogiako, antolaketako eta kudeaketako praktika onak dituzten ikastetxe eredugarrien sarea handitzea.
- Marko komunean lanean ari diren ikastetxeen ikerketa-lana batzea, ikastetxeen banakako prozesuak taldeko lanaren bidez errentagarri egiteko.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza sustatzea.

Esleipena

Ikastetxe aukeratuek jardunaldi lektibo erdiaren, proiektuaren arduradunarentzat, izango dute. Honetaz gain 1.500 €-tako diru-laguntza jasoko dute. Diru kopuru hau ikasturtero eskainiko da beti ere ikastetxeak jasotzen duen balorazioa positiboa bada eta proiektuan jarraitzen badu.

Halaber, aholkularitza tekniko bateratuaren laguntza izango dute programan parte hartzen duten ikasturteetan. Amara Berri Sistemako ikastetxeen sareko aholkularitza taldeak eskainiko die aipatu berri dugun laguntza parte-hartzaileei.

Berariazko baldintzak

Eskabidea onartu ahal izateko, jarraibide hauetan zehaztutako baldintza orokorrak betetzeaz gain, berariazko baldintza hauek bete beharko dira:

- a) aurkeztu beharreko dokumentazio orokorrari 1. eranskina gehitu beharko zaio.
- b) konpromisoa, zuzendaritza taldearena eta proiektuaren arduradunarena, Amara Berri Sistemako ikastetxeen sareko prestakuntza-alorren bidez Sailak antolatzen dituen prestakuntza- nahiz koordinazio-bileretan parte hartuko dutela diona.
- c) Ikastetxeak esku-hartze pedagogikoari, antolakuntzari eta kudeaketari buruzko plana egin eta aurkeztu beharko du. Plan hori urteko planaren barruan jaso beharra dago eta besteak beste, ondoko hauek ekarriko ditu: helburuak, ikasleekin gauzatu nahi diren jardueren deskribapena, jarduera horien aplikazio-eremuak (gelak, ikasturteak, maila...), ezartze-faseak, beharrezkoak diren baliabideak eta ebaluazio-adierazleak.



Ezarpen-faseak. Ezarpen-faseak aldi berean gauza daitezke.

1.- Sentsibilizazio-fasea

Amara Berri Sistemaren oinarritzko elementuak ezagutzea (ondoko hauen bidez: hitzaldiak, prestakuntza-ikastaroak, sareko ikastetxeetara bisitak, sareko hainbat arloetan parte hartzea –zuzendaritza-taldeetan, mintegietan...–).

2.- Gogoeta-fasea

- Ikastetxearen diagnostikoa.
- Ikastetxeak azken urteetan izan duen bilakaera aztertzea.
- Oraingo egoera aztertzea. Hobetze-elementuak identifikatzea.

3.- Martxan jartzeko fasea

- Metodologian eta antolakuntzan gauzatu behar diren aldaketei buruzko erabakiak hartzea (programan parte hartu duten irakasleak eta ikasleak, ezartze-eremua, denbora zehaztea...).
- Ikaskuntza, berdinkideen arteko elkarlana eta praktika inklusiboak sustatuko dituzten testuinguru sozialak ikasgeletan aplikatzea eta sistematizatzea.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza, trebetasunak hobetzeko.
- Ikastetxeen arteko koordinazio-, prestakuntza- eta trukatzeko-bileretan parte hartzea, nor bere ikastetxeko ohiturak eta gogoetak ekarriz.
- Ikasgelako ohiturak eta prozesuak ebaluatzea eta jarraitzea, antolakuntzako nahiz metodologiako aldaketak orokortzeko eta finkatzeko bidean aurrera egiteko.

Baremoa.

Ondoko baremo hau aplikatuko da eskabideak balioesteko:

1. Irakasleen konpromisoa proiektuan parte hartzeko: 20 puntu gehienez ere.
2. Irakasleek parte hartu izana Amara Berri Sistemari buruz egindako ikastaroetan edo prestakuntza-bisitetan: 14 puntu gehienez ere.
3. Azken hiru urteotan egindako hezkuntza-prestakuntza eta -berriztatze proiektuak: 14 puntu gehienez ere.

Berriazko jarraipena eta ebaluazioa

Hezkuntza-ikuskaritzak jarraitu eta ebaluatuko du ikastetxe bakoitzean esku-hartze plana ezartzeko prozesua. Hezkuntza Ikuskaritzak egoki diren bisitak egingo ditu prozesuak iraun bitartean, plan horrek eskatzen dituen baldintzak ezarri egiten direla egiaztatzeko. Behin baldintza horiek egoki bete direla egiaztatu, ikastetxeak programan jarraitzeari buruzko txostena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzak.



B – 2: 1. ERANSKINA

AMARA BERRI SISTEMARI LOTUTAKO DATUAK

Ikastetxea.....Kodea:

Udalerrria Lurraldea:

Proiektuan parte hartzeko baiezkoa eman duen irakasle-kopurua	
Formazio eta koordinazio bileretara joateko konpromisoa hartzen duen irakasle-kopurua	

Ikastetxeak azken 3 ikasturteetan parte hartu izan duen Prestakuntza eta Hezkuntza Berriztatzeko proiektuak	
Proiektua	Ikasturtea/ak

.....n, 2010eko.....k.....

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura